

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Iragarkia

2022ko abenduaren 9an Eibarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilkuran, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuen oinarri hauek onartu zituen:

20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKO IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, MARRAZKI-IRAKASLE LANPOSTUARI DAGOZKIONAK

1. Deitutako plaza.

Marrazki-irakasleari dagokion plaza baten deialdia egingen da, txanda irekian:

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Anuncio

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Eibar, en sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2022, aprobó las siguientes bases de los procesos de estabilización derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público:

BASES ESPECÍFICAS DE LA CONVOCATORIA DEL PROCESO DE LA CONVOCATORIA EXCEPCIONAL DE ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL DE LARGA DURACIÓN DERIVADO DE LAS DISPOSICIONES ADICIONALES 6ª Y 8ª DE LA LEY 20/2021, CORRESPONDIENTES AL PUESTO DE PROFESOR/A DE DIBUJO

1. Plaza convocada.

Se convoca una plaza de profesor/a de dibujo, por el turno libre:

PLAZA KOPURUA NÚMERO DE PLAZAS	LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, betekizun espezifikoak, etab.) CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, requisitos específicos, etc.)
1	Marrazki irakaslea. (Lanaldiaren % 50) Profesor/a de dibujo (50% jornada)	2. hizkuntza eskakizuna (2011-01-17) Perfil lingüístico 2 (17-01-2011)

2. Parte hartzeko baldintzak.

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. atalean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

2.2. Oinarri orokorretako 2.h) idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, batxilergoko titulazioa edo teknikari titulazioa edo baliokidea eskatzen da.

3. Lanpostua esleitzeko berariazko baldintzak.

2. Requisitos de participación.

2.1. Quienes aspiren a las plazas deben cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

2.2. En relación a lo dispuesto en el apartado 2. h) de las bases generales, se exige la titulación de bachiller o técnico o equivalente.

3. Requisitos específicos para la adjudicación del puesto.

Deialdi honen xede den plazari lotutako lanpostuan, 2. hizkuntza-eskakizuna bete behar da, 2011-01-17ko derigortasun-datarekin.

Aipatutako betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1. Lehenengo zatia, lehiaketa: izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan ezarritako instantzia-kopurua baizik ez da baloratuko, puntuazioaren arabera ordenatuta.

Gutxienez puntu guztien % 50eko puntuazioa lortu beharko da, oinarri orokorren 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.2. Bigarren zatia, euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaila izango da 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duten lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaiatzat. Proban hautagaiak maila horretan duen euskararen ezagutza egiaztatuko du.

Euskarazko Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria egiaztatuta agertzen bada, ez da egiaztatu beharko, eta, horretarako, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio Eibarko Udalari, erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dauden beste euskara-tituluak edo -ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, baina behar bezala baliozkotuta, euskararen tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzei salbues-teari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoaren babesean, dagokien ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, RUTCE- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria baliozkotu diren salbuespenak baizik ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoari jarraikiz emandako puntuen baturaren arabera izango da. Baremoa I. eranskinean dago jasota

En el puesto de trabajo asociado a la plaza objeto de esta convocatoria es requisito de provisión el perfil lingüístico de euskera PL 2, con fecha de preceptividad 17-01-2011.

Los requisitos citados deberán ser acreditados de conformidad con lo establecido en la base 2 y 8 de las bases generales.

4. Proceso selectivo.

El sistema de selección será el de concurso y constará de dos (2) partes:

4.1. Primera parte, el concurso: consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia, por medio del sistema de autovaloración, y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que le correspondan con arreglo al Baremo de méritos. Solo se valorará el número de instancias ordenadas por puntuación que se haya dispuesto en las bases generales que rigen la convocatoria.

Será necesario obtener una puntuación mínima del 50% del total de puntos, a los efectos de lo establecido en la base 10.2 de las bases generales.

4.2. Segunda parte, prueba de euskera: de carácter obligatorio y eliminatorio para las y los aspirantes que opten a la plaza con puestos de trabajo asociados, con perfil lingüístico PL 2, de carácter preceptivo. Consistirá en determinar y acreditar en todo caso, el conocimiento del euskera al referido nivel.

Cuando figure acreditado en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, no habrá que acreditarlo, para lo cual la persona participante autorizará expresamente al Ayuntamiento de Eibar a su comprobación en el citado registro.

No obstante, sí deberá aportarse cualquier otro título o certificado de euskera no incluido en dicho registro, pero sí convalidado de acuerdo al Decreto 297/2010 de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de euskera, y su equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico PL 2 al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica correspondiente. A estos efectos, únicamente se reconocerán aquellas exenciones que se hayan validado en el RUTCE-Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera.

5. Calificación del proceso selectivo.

5.1. La calificación del concurso vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al Baremo de méritos que se incluye como Anexo I.

5.2. Bigarren zatia Gai edo Ez gai gisa kalifikatuko da nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituzten pertsonentzat.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du

6. Lan-poltsa.

Hautaketa-prozesu honetatik ez da lan-poltsarik sortuko.

7. Berdinketa hausteko irizpideak.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua ondo onartutako, ez da aplikatuko artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude azpiordezkatuta administrazio bereziko eskalako teknikari laguntzailearen azpi-
eskalan.

Berdinketarik gertatuz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, Eibarko Udalean, deitzen den lanpostuan, zerbitzu-denbora gehien eman duen izangaiaren alde egingo da; bigarrenik, Eibarko Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duena hartuko da kontuan; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duena eta, azkenik, berdinketak iraunez gero, zozketa-sistemara joko da.

I ERANSKINA: MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Lan-esperientzia: 80 puntu, gehienez

a.1.- Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, bai eta Eibarko Udalean ere, aurrekoekin parekatutako kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeei atxikitako lanpostuetan egindako zerbitzuengatik esperientzia, baldin eta hautaketa-prozesuaren xede badira, arrazoia duen harremanaren izaera edozein dela ere –funtzionarioa edo lan-kontratuduna–.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

Edozein administrazio publikotan, bai eta Eibarko Udalean ere, Administrazio bereziko eskalako teknikari laguntzailearen azpieskalan, marrazki-irakasle kategorian (C1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik, 0,0274 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifiko:

5.2. La segunda parte se calificará de Apto o no Apto para aquellas personas que opten a la plaza que lleva aparejado perfil lingüístico preceptivo.

5.3. La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

6. Bolsa de empleo.

Del presente proceso selectivo no se creará bolsa de empleo.

7. Criterios de desempate.

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, no se aplicará la cláusula de desempate prevista en el citado artículo al no existir subrepresentación de las mujeres en la subescala técnico/a auxiliar escala administración especial.

Si se dieran empates, el orden se establecerá atendiendo, en primer lugar, a favor de la persona aspirante que hubiera prestado más tiempo de servicios, en el Ayuntamiento de Eibar, en el puesto que se convoca; en segundo lugar, de la que hubiera prestado más tiempo de servicios en el Ayuntamiento de Eibar; en tercer lugar, de la que hubiera prestado más tiempo de servicios en otras Administraciones Públicas y en último lugar, si persistiera el empate, se acudirá al sistema del sorteo.

ANEXO I. BAREMOS DE MÉRITOS

De conformidad con lo dispuesto en las disposiciones adicionales sexta y octava de la ley 20/2021 de 28 de diciembre:

a) Experiencia: hasta un máximo de 80 puntos.

a.1.- Experiencia general:

Se entiende por experiencia general, la experiencia por los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluido el Ayuntamiento de Eibar, en puestos adscritos a los cuerpos, escalas, subescalas, opciones, especialidades o grupos profesionales asimilados a los anteriores que sean objeto del proceso selectivo, con independencia del carácter, funcional o laboral, de la relación de la que traiga causa.

Se valorará hasta un máximo de 60 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

Por servicios prestados en la subescala técnico/a auxiliar de la escala de Administración especial, en la categoría de profesor/a de dibujo, subgrupo C1, en cualquier Administración pública, incluido el Ayuntamiento de Eibar, 0,0274 puntos por día trabajado.

a.2.- Experiencia específica:

Gehienez 20 puntu emango dira berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, Eibarko Udalean egindako zerbitzuak baloratzeko, hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuan aritzeagatik, honako baremo honen arabera:

Eibarko Udalean, Administrazio bereziko eskalako teknikari laguntzailearen azpieskalan, marrazki-irakasle kategorian (C1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura eginez egingo da zenbaketa. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Kontratu / Izendapen bat ezin izango da egun batean baino gehiagotan zenbatu.

b) Titulazioak eta prestakuntza. Gehienez 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1.- Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoko maila (1) baino handiagoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 10 puntu

C1: Unibertsitateko gradu mailako titulazioa edota balio-idea (MECES 2 maila)

b.2.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izatea (ez dena betekizun gisa egiaztatutako titulua), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 7,5 puntu

b.3.- Deitutako plazari lotutako lanpostuaren funtzio-eremuarekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroetan jasotako ordu kopuruagatik, 0,2 puntu jasotze-ordu bakoitzeko; gehienez ere 20 puntu. Prestakuntza Ikastaro horiek erakunde ofizialek emandakoak edo homologatutakoak izan behar dira (herri-administrazioako eskolak edo institutuak, herri-administrazioak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak).

II. ERANSKINA. EGINKIZUNAK (onartzeko zain)

Erantzukizun orokorrak:

Pintura- eta marrazki-eskolak ematea.

Eskolako materialaren egoeraz arduratzea.

Udalak agindutako lan artistikoak egitea eta jaietarako karrozen eta eszenografiaren diseinuaz eta muntaketaz arduratzea.

Se valorarán, hasta un máximo de 20 puntos, de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, los servicios prestados en el Ayuntamiento de Eibar por el desempeño del puesto convocado en el proceso selectivo, de acuerdo al siguiente baremo:

Por servicios prestados en la subescala técnico/a auxiliar de la escala de Administración especial, en la categoría de Profesor/a de dibujo, subgrupo C1, en el Ayuntamiento de Eibar, 0,00914 puntos por día trabajado.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

b) Titulaciones y formación. Se valorarán hasta un máximo de 20 puntos los siguientes méritos:

b.1.- Por estar en posesión de un título correspondiente en un (1) nivel de formación académica superior al exigido para el acceso a la plaza convocada, siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 10 puntos
C1: Titulación de grado universitario, o equivalente (Nivel MECES 2)

b.2.- Por estar en posesión de un título académico del mismo nivel que el exigido para el acceso a la plaza (distinto al acreditado como requisito), siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 7,5 puntos

b.3.- Por la cantidad de horas de recepción de cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 0,2 puntos por cada hora de recepción, hasta un máximo de 20 puntos.

ANEXO II FUNCIONES (pendientes a la espera de aprobación)

Responsabilidades Generales:

Impartir las clases de pintura y dibujo.

Responsabilizarse del buen estado del material de la Escuela.

Realizar los trabajos artísticos encomendados por el Ayuntamiento y responsabilizarse del diseño y montaje de las carrozas y escenografía de diferentes fiestas.

Eginkizun esanguratsuenak:

MARRAZKI ETA PINTURA:

1. Marrazki Eskolako programazioa egitea, ikasleen adin eta gaitasun ezberdinak kontuan hartuz.
2. Marrazki-eskolak ematea, Marrazki Eskolako programazioaren eta irizpide pedagogikoen arabera.
3. Marrazki-Eskolako ikasleen gaitasunak ebaluatzea, dagokion txostena eginez.
4. Marrazketa Eskolako berezko material suntsigarria erostea: mihiseak, laminak, pinturak, arkatzak.
5. Aurrekontuak eskatzea, Kultura Sailari pasatzea onar ditzan, materialak jasotzea, eta albaranak eta fakturak kontrolatzea.
6. Marrazki Eskolaren erabilera berezia eskatzen duten materialak (disolbatzaileak, alkoholak eta abar) eskusiboki manipulatzeko, erabiltzea eta maneiatzea.
7. Marrazki Eskolako instalazioak erabilera-egoera onean mantentzea.
8. Marrazki Eskolako ikasturte amaierako erakusketa antolatzea eta muntatzea, ikasleek egindako lanak aurkeztu ahal izateko, bai eta Udalaren beste jarduerak batzuetan lankidetzan aritzea ere, hala nola epaimahai izatea kartel-lehiaketetan, aire zabaleko pintura-lehiaketetan eta abarretan.
9. Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea, hala nola museoetara, galerietara edo ikasleentzako gune interesgarrietara egindako irteera kulturalak.
10. Marrazki Eskolako matrikulazio- eta publizitate-kanpainetan laguntzea eta parte-hartzea.
11. Marrazki Eskolako urteko memoria egitea.

BESTE BATZUK:

12. Errege Magoen eta San Juan jaietako karrozak diseinatu, egin eta muntatzea; eta baita Errege Magoei eta Olentzerori udaletxeko patioan harrera egiteko agertokiak ere.
13. Udal barruko sailetarako kartelak, txartelak eta ilustrazioak diseinatzea.

Tareas más Significativas:

DIBUJO Y PINTURA:

1. Elaborar la programación de la Escuela de Dibujo, con un programa apto para los diferentes tipos de edades y capacidades del alumnado.
2. Impartir clases de dibujo de acuerdo con la programación y criterios pedagógicos de la programación de la Escuela de Dibujo.
3. Evaluar las capacidades adquiridas por el alumnado de la Escuela de Dibujo, elaborando el oportuno informe.
4. Realizar las compras oportunas de material fungible propio de la Escuela de Dibujo: lienzos, láminas, pinturas, lápices,
5. Solicitar presupuestos, pasarlos al Departamento de Cultura para su aprobación, recepcionar los materiales, así como llevar el control de albaranes y facturas.
6. Manipular, utilizar y manejar en exclusividad los materiales que requieren un uso especial de la Escuela de Dibujo, tales como disolventes, alcoholes, etc.
7. Mantener las instalaciones de la Escuela de Dibujo en buen uso.
8. Organizar y montar la exposición fin de curso de la Escuela de Dibujo, para poder presentarse los trabajos realizados por el Alumnado, así como colaborar en otras actividades del Ayuntamiento, como son jurados de concursos de carteles, de pintura al aire libre y otros
9. Organizar actividades extraescolares tales como salidas culturales a museos, galerías o sitios de interés dirigidas al alumnado.
10. Colaborar en las campañas de matriculación y publicidad de la Escuela de Dibujo.
11. Elaborar la memoria anual de la Escuela de Dibujo.

OTRAS:

12. Diseñar, elaborar y montar las carrozas de Reyes Magos y San Juan; escenarios para recibimiento a los Reyes Magos y Olentzero en el patio del Ayuntamiento.
13. Diseñar carteles, tarjetas, ilustraciones para distintos departamentos.

14. Portalea eraikinaren Segurtasun-Planak agindutako eginkizunak betetzea.

15. Hala agintzen zaionean, bere gaitasunari dagokion beste edozein zeregin egitea, baldin eta aldez aurretik eginkizun hori egiteko prestakuntza jaso badu.

Eibar, 2022ko abenduaren 9a.-Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(8153)

14. Ejecutar las funciones encomendadas por el Plan de Seguridad del Edificio Portalea.

15. Efectuar cualquier otra tarea propia de su capacitación profesional contratada que le sea encomendada y para la cual haya sido previamente instruido.

Eibar, a 9 de diciembre de 2022.-El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(8153)